



Euskadi-preben

*Estrategia de País  
Herri-estrategia*

## EAEn Nekazaritzako Sasoikako Lan Jardueretan COVID-19a Geldiarazteko Jarduera Protokoloa. (2022ko Apirila)

“Laneko Segurtasun eta Osasuneko Estrategia Sektoriala Euskadiko Elikaduraren  
eta Egurraren Balio Katerako - 2025”

*Euskadi, auzolana, bien común*

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO



OSALAN

Laneko Segurtasun eta  
Osasuneko Euskal Erakundea  
Instituto Vasco de Seguridad y  
Salud Laborales

Euskadi-preben  
*Herri-estrategia  
Estrategia de País*

2025

Berrikuspen eta aldaketen kontrola		
Berrikuspen zk.	Data	Aldaketak
1	2020/08/06	EAEko eragile instituzional eta sektorialen artean adostutako lehen bertsioaren hasierako argitalpena.
2	2021/05/09	EAEko eragile instituzional eta sektorialek berrikustea, alderdi hauek kontrastatuz: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Arriskuekiko esposizioaren ebaluazioari eta ezarri beharreko neurriek lotutako jarduerak, erantzukizunak eta konpetentziak txertatzea.</li> <li>• Lehendik dauden neurri guztien eraginkortasunaren analisia jasotzen duen eranskina sartzea: higiena, lan espazioen ezaugarriak, detekzio goiztiarra eta kontrol epidemiologikoa, antolamendua eta norbera eta taldea babesteari buruzkoak.</li> <li>• Eranskin bat gehitu da, leku itxietan aerosolen bidezko transmisioa murrizteko eta kontrolatzeko neurrien laburpen batekin, birusaren hedapenari, transmisioari eta infekzioari aurre egiteko gaur egungo ezagutza aipatuz, esaterako, batez ere leku itxietan aerosolen bidez transmititzeari dagokiona.</li> <li>• COVID-19aren detekzio goiztiarraren, kontrolen eta prebentzioaren estrategia epidemiologikoa indartu da.</li> <li>• Prozedura berrikusi da, lanean hasi aurretik PCR proba eginda, Osasun Sailak gaur egun ezarritakoaren arabera.</li> <li>• Aerosolen bidezko hedapena eta transmisioa kontrolatzeari lotutako neurriak sartu dira.</li> <li>• "Nekazaritzako sasoikako lana erabiltzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena" jakinarazteko betebeharra kendu da behin-behinean.</li> </ul>
3	2021/08/02	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Erreferentzia gisa, "COVID 19 ZIURTAGIRI DIGITALA" mugikortasun eta egiaztapen baliabidea sartu da, hobetzeko tresna potentzial gisa.</li> <li>• Txertoa sustatzeko orientabideak eta sentsibilizazio alderdiak erantsi dira, baita joan-etorrietan txertoa jartzeko aukerari buruzko informazioa ere.</li> <li>• Erantzukizunak eta prebentzio eta euste neurriak berrikustea, hala nola espazio itxietako aireztapenari, maskaren erabilerari, segurtasun distantzietan eta abarri lotutakoak.</li> </ul>
4	2021/08/27	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Erantzukizunak, betebeharrak eta prebentzio eta euste neurriak berrikustea, hala nola espazio itxietako aireztapenari, maskaren erabilerari, segurtasun distantzietan eta abarri lotutakoak.</li> <li>• Txertoa hartu ez duten pertsonen txertoa jartzea eskaintzea.</li> <li>• Erreferentziak eguneratzea.</li> </ul>
5	2022/04/22	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Herritarren epidemiologia eta immunitate testuingurua eta Covid-19a zaintzeko eta Kontrolatzeko Estrategia Berrira egokitzea pandemiaren fase akutuen ondoren.</li> </ul>

### Kontraste taldea:

Prozedura garatzeko eta kontrastatzeko taldea hauek osatzen dute: osasun sektorean eta esparruan eskumena duten erakundeetako teknikariak, sektoreko erakunde eta elkarteak, erakunde publikoak eta berrikuntza teknologikoko zentroak.

## Aurkibidea.

<b>Aurkibidea</b> .....	3
<b>1.- Sarrera</b> .....	4
<b>2.- Helburua eta irismena</b> .....	7
<b>3.- Erantzukizunak eta betebeharrak</b> .....	8
<b>4.- Kanpainen planifikazioa</b> .....	8
<b>5.- Garraioa eta lekualdaketa</b> .....	10
<b>6.- Higiene, babes eta antolamendu neurriak lan prozesuetan</b> .....	10
<b>7.- Txertaketa eta Sintoma Bateragarriak, Kasu Baieztatuak eta Kontaktu Estuak dituzten Pertsonen Jarduketa</b> .....	11
<b>7.1.- Txertoak</b> .....	11
<b>7.2.- Txertaketa eta Sintoma Bateragarriak, Kasu Baieztatuak eta Kontaktu Estuak dituzten Pertsonen</b> .....	12
<b>8.- Berrikuspena eta eguneraketa</b> .....	13
<b>Taulen eta Ilustrazioen aurkibidea</b> .....	14
<b>Bibliografia eta kontsultatutako erreferentziak</b> .....	14
<b>ERANSKINAK</b> .....	18
<b>1. Eranskina.- SARS-CoV-2 birusaren transmisioa kontrolatzeko prebentzio-neurrien eraginkortasunaren analisia</b> .....	19
<b>2. ERANSKINA.- Aerosolek SARS-CoV-2 birusa hainbat egoeratan transmititzeko arriskuaren kategorizazio kualitatiboa</b> .....	25
<b>3. ERANSKINA.- Barneko espazioetan aerosolen bidez SARS-CoV-2 birusaren transmisioa kontrolatzeko eta murrizteko neurriak</b> .....	26

## 1.- Sarrera.

Joan den uztailaren 24an elkartu ziren autonomia erkidegoetako eta estatuko Osasun, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura alorretako ordezkari nagusiak, COVID-19aren pandemiak irauten duen bitartean sasoikako langileak lurralde batzuetatik beste batzuetara mugitzeak dakartzan arazoei heltzeko udalen eta eragile sektorialen artean beharrezkoa den lankidetzaz hitz egiteko.

Topaketan agerian jarri zen planifikatu beharra dagoela datozen asteetan nekazaritzako kanpainetan arituko diren profesionalen mugimenduak, horien artean egonik mahats bilketa eta patataren kanpaina orokorrak.

Mugimendu horiei aurrea hartuta, lurraldeak elkarren artean koordinatuta eta erakundeek eta sektoreak lagunduta, sasoikako lanaren inguruko prozesu guztietan osasun alorreko bermea egotea lortu behar da, premiak, mugimenduak eta garraioa erabakitzeko etapetan zein sasoikako langile profesionalak ostatu hartzean eta dagozkien lanak gauzatzean, berdin dela nondik datozen eta zer bidetatik kontratatu diren (jatorrian, adostua edo ustiategian zuzenean).

Horrez gain, EAEko nekazaritza ustiategiek nekazaritzako kanpaina jakin batzuetarako sasoikako langileak kontratatu beharra dutela eta, eta kontuan hartuta langile horiek gehienbat hirugarren herrialdeetatik etorritakoak direla edo EBko herritarrak ere badirela, gure erantzukizuna da pertsona horiei bizi baldintza duinak bermatzea Euskadin dauden bitartean.

Eusko Legebiltzarrak, 2002ko abenduaren 12ko osoko bilkuran, Sasoikako langilearen arretarako Plan Oso bat lantzeko eskatu zion Eusko Jaurlaritzari, baita Erakunde Arteko Mahai bat sortzeko ere, Plan horren estrategiak modu koordinatuan garatzeko.

Horrenbestez, 2004ko ekainaren 30ean, EAEko Sasoikako Lanaren Erakunde Arteko Mahaiak Sasoikako Lanaren Arretarako I. Plan Integrala egin eta onartu zuen, 2004-2007 aldirako.

Gaur egun, Sasoikako Lanaren Arretarako IV. Plan Integrala (2017-2020) dago indarrean, hiru multzo handitan egituratuta: (1), kontratazio baldintzak hobetzea, (2) ostatuak eta (3) sasoikako langileei lotutako adingabeen arreta.

Eremu horretan, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari dagozkio EAEko Sasoikako Lanaren Erakunde Arteko Mahaiaren presidentzia, Mahaiaren jarduerak koordinatzea eta ostatuen gaiarekin zerikusia duten ekintzak garatzea eta gauzatzea, tartean direla dagokion Eregistroa kudeatzea eta zaintzea.

EAEko sasoikako lan kanpainetan behin-behineko langileak kontratatzen dira, eta jarduera horietan beharrezkoa da COVID-19ari aurre egiteko prebentzio neurriak hartzea. Enpresen eta ustiategien erantzukizuna da une bakoitzean dagoen esposizio arriskuaren ebaluazioa moldatzea, osasun agintariek indarrean jarri dituzten jarraibideei jarraituz.

Begi-bistakoa dirudi kanpaina garatzen den bitartean pertsona horiek duten ostatua funtsezkoa dela, horiek izan daitezkeelarik ustiategiek beraiek eskainitakoak, aterpeak, alokatutako etxeak, etab., kontuan hartuta beharrezkoa izan daitekeela jangelak eta ikasgelak egotea laguntzen dieten familientzat.

Eremu geografikoen eta lurraldeen arteko desplazamenduak, bai nazioartekoak, estatukoak nahiz Euskadi barrukoak, bai jarduerak berak, zeina taldeka eta/edo koadriletan egiten baita, pertsonen arteko eta interakzio sozialeko harreman garrantzitsua ekar dezake. Profesional horietako askok jatorri multikulturala eta migratzailea dute, eta askotan elkarrekin bizi behar dute eremu komunak partekatuz, baita banaketa fisikorik gabeko gelak partekatuz ere. Kasuistika horrek osasun arloko neurriak eta gomendioak ezartzeko eskatzen du, esposizio potentziala minimizatzen eta, beraz, SARS-CoV-2a transmititzeko arriskua gutxitzeko.

Jarduera horien arduradunek neurriak ezarri behar dituzte higienari, antolamenduari eta kontrolari dagokienez. (ikus 1. ERANSKINA.- SARS-CoV-2 birusaren transmisioa kontrolatzeko prebentzio neurrien eraginkortasunaren azterketa).

Birusaren hedapena, transmisioa eta infekzioa oinarri hartuta une honetan dauden ezagutza eta azterketa zientifikoek agerian uzten dute aerosolak transmisio bide bat direla (ikus ERANSKINAK).

Aerosolen bidez SARS-COV-2az kutsatzeko arriskuen ebaluazioak zehazten du SARS-CV-2 birus bideragarria duten aerosolak sortzeko arrisku handiagoan edo txikiagoan eragiten duten faktoreak eta horien transmisioa hauek direla:

Bektorea	Faktoreak
Igorlea (kutsagarritasun aldia infektatutako pertsona)	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Infektatutako pertsonaren birus karga.</li> <li>• Isuritako aerosolen kontzentrazioa eta tamaina.</li> <li>• Isurpen denbora.</li> </ul>
Hartzailea (pertsona sentikorra)	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Arnastutako airearen bolumena.</li> <li>• Esposizio denbora.</li> <li>• Birus kontzentrazioa inhalatutako aerosoletan.</li> <li>• Isurlearekiko posizioa eta distantzia.</li> <li>• Zaurgarritasun pertsonala.</li> </ul>
Agertokiaren araberako baldintzak (Ikus 3. ERANSKINA)	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Transmisio komunitarioaren maila eta egon daitezkeen ehunekoak.</li> <li>• Denbora, espazioa.</li> <li>• Kanpoaldeak eta barrualdeak.</li> <li>• Aireztapen egokia.</li> <li>• Isuritako partikulen portaera aerodinamikoa.</li> </ul>

1. Taula.- SARS-CoV-2 birus bideragarria duten aerosolak sortzeko arrisku faktoreak. Hemendik lortua: Osasun Ministerioaren dokumentu teknikoak: SARS-CoV-2a aerosolen bidez transmititzeko arriskua ebaluatzea. Prebentzio neurriak eta gomendioak.

Ildo horretan, leku itxietan aireztapen neurri naturalak, behartuak edo mistoak aplika daitezke, baita ere airearen kalitatea sentzore bidez kontrolatu, bioaerosolen bidezko garraioa kontrolatu, aire fluxuak eta horien konfigurazioa analizatuz, klimatizazio instalazioak egokitu eta mantendu, dagokionean, eta ekipamendu espezifiko eta homologatuekin inaktibatzen edo arazteko aukerak aztertu.

**Kontuan hartu behar da gaur egun COVID-19aren aurkako neurririk eraginkorrena txertoa dela**, eta, horregatik, langileen artean zabaldu behar da, eta enpresek eta erakundeek sustatu behar dute, baita Europar Batasunak bultzatu duen COVID digitalaren ziurtagiria ere, joan-etorriak eta mugikortasuna bermekin egiteko. (www.euskadi.eus, 2021).

Osasun agintaritzak maskararen erabilerari buruz egindako analisia hartu behar da kontuan:

- 2022ko martxora arteko COVID-19aren epidemiaren bilakaera onak, lortutako txertaketa estaldurek eta SARS-CoV-2aren transmisioa kontrolatzeko neurri ez-farmakologikoen aplikazioak lagunduta, epidemia kontrolatzeko estrategietan aldaketak planteatzea ahalbidetu du.
- Estatuan txertaketaren estaldurak %92tik gora daude 12 urtetik gorako herritarren artean, eta 60 urtetik gorako %92k baino gehiagok jaso dute errefortzu dosia, populazio talde horren babesa hobetzeko COVID-19 larriaren eta heriotzaren aurrean. 5 urtetik 11 urtera arteko haurrak dira txertatzeko prozesuari beranduen ekin zion taldea, eta, dagoeneko, %40k baino gehiagok dute pautu osoa. Espainian erabilitako txertoek, eskura dauden datuen arabera, eta kalkulatzeko screening metodoa erabiliz, %90 baino gehiagoko eraginkortasuna erakusten dute COVID-19ak eragindako koadro larriak eta heriotzak prebenitzeko. Txertoen eraginkortasun handiak eta lortutako estaldura altuek aldaketa garrantzitsua eragin dute COVID-19aren epidemiologian gure herrialdean.
- Epidemiaren jarraipena egiteko indarrean dauden adierazle nagusi guztiak, pandemiaren fase akutuari ondoren COVID-19ari aurre egiteko Zaintza eta Kontrol Estrategiaren arabera, eta 2022ko apirilaren 8an argitaratutako azken txostenak dioenez, arrisku maila baxuan daude lurraldearen zatirik handienean, eta, ondorioz, alerta 1. mailan dago 52 probintzietatik 42tan, eta 2. mailan 8 probintzietan. Bi probintzia dagoeneko ez daude alerta egoeran.
- Gaixotasunaren larritasuna nabarmen murriztu da txertoen aurreko alditik ondorengo aldira. Horrenbestez, Zaintza Epidemiologikoaren Sare Nazionalaren bidez jasotako datuen arabera, kasuen ospitaleratze tasa batez beste %7 inguru murriztu da 2020ko abendutik 2021eko otsailera bitarteko olatu epidemikoan, eta %1,19 2021eko abendutik 2022ko martxora bitarteko olatu epidemikoan, eta ZIUetako sarrerak %0,67tik %0,06ra murriztu dira, eta heriotzak %1,46tik %0,19ra, biztanleria osoa kontuan hartuta. Eragin hori adin tarte guztietan ikusten da, nolabaiteko aldakortasunarekin bada ere. Gainera, sistema asistentzialaren gaineko presioa askoz txikiagoa izan da epidemiaren azken olatuan erreferentziazat aipatzen denean baino. Gaur egun, ospitaleetako oheen okupazioa %3,4koa da, eta ZIUetako oheena %4koa; beraz, bi adierazleak oso maila baxuetan kokatzen dira epidemian zehar detektatu direnen ondoan.

(Ministroen Kontseilua, 2022)

### Kontsultatu informazio gehigarria komunikazio kanal ofizialetan:

Osalanek (Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea) kontaktu hauek gaitu ditu kanpainako arriskuen prebentzioari buruzko kontsultetarako:

Telefona: **945016800**

Email: [osalan.covid19temporeros@euskadi.eus](mailto:osalan.covid19temporeros@euskadi.eus)

<https://www.osalan.euskadi.eus/zer-egiten-dugu/-/sasoikako-lana-2022ko-kanpaina/>

**Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila. Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako Sailburuordetza. Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europako Politiketako Zuzendaritza.** [https://www.euskadi.eus/web01-a2lanits/eu/contenidos/informacion/campana\\_temporeros/eu\\_agripes/index.shtml](https://www.euskadi.eus/web01-a2lanits/eu/contenidos/informacion/campana_temporeros/eu_agripes/index.shtml)

**Osasun Saila:** <https://www.euskadi.eus/sasoikako-langileei-buruzko-informazioa/web01-a2korona/eu/>

**Euskadi-preben 2025 Estrategia:** <https://www.preben.eus/materiales-agricultura/>

## 2.- Helburua eta irismena.

Proposamen honen helburua da Nekazaritza Ustiategietarako higiene eta osasuneko segurtasunaren alorrean dagoen protokoloa berrikustea eta eguneratzea. Protokoloak ezagutzera ematen zituen sasoikako langileak kontratatuko dituzten nekazaritza sektoreko enpresetan eta langile horiei emandako ostatu lekuetan inplementatu beharreko jardunbide egokiak, langileen artean SARS-CoV-2a hedatzea eta infektatzea prebenitzeko.

Protokolo honek, nekazaritzako ustiategien sektorerako aplikagarriak diren segurtasun neurrien bilduma bat jasotzen duen erreferentzia bat izateaz gain, nekazaritzako kanpainetan egingo den lana ahalik eta segurtasun eta osasun bermerik handienekin eta eraginkortasunez garatzea bermatzeko sektoreak, erakundeek eta langileek COVID-19aren pandemiaren esparruan izango dituzten betekizunak, obligazioak eta erantzukizunak ere jasotzen ditu.

Horretarako, kontuan hartu dira Osasun Ministerioak, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak, Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak eta OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak landutako jarraibide eta gomendio guztiak, baita estatu eta Europa mailan baliagarri diren beste erreferentzia batzuk ere, eta egungo ezagutza zientifikoa.

### 3.- Erantzukizunak eta betebeharrak.

Nekazaritzako enpresa eta ustiatagietako pertsona guztien zeregina da langileen segurtasuna zaintzea, osasun agintaritzek eta administrazio eskumendunek unean-unean emandako jarraibideak, gomendioak eta neurriak betez. Hartu beharreko prebentzio neurrien gaineko erabaki guztiak esposizio arriskuaren ebaluazioaren bidez jasotako informazioan oinarritu behar dira. Prozesu horretan, langileei edo horien ordezkariari egingo zaie kontsulta eta beren proposamenak jasoko dira, esaterako:

- Ezarritako distantzia soziala.
- Okupazio maila.
- Egongo den denbora.
- Espazio komunak.
- Garraiobide partekatuak.
- Pertsona zaurgarrien presentzia.
- Higiene neurriak.
- Lan tresnak eta ekipoa, instalazioak eta abar garbitzea eta desinfektatzea.
- Arnasbideen babeserako osasun neurriak: Une bakoitzean osasun agintaritzak ezarritako jarraibideak beteko dira.
- Aireztapen egokia espazio itxietan eta era guztietako joan-etorrietan.

Neurriak garraioan eta lanlekuetan hartu behar dira, eta, esku artean dugun kasuan, sasoikako langileen ostatu lekuetan ere bai.

Gure lan ingurune zein ingurune soziala hobetzeko erantzukizun indibidual eta kolektiboa dugu, birusaren transmisioari dagokionez.

### 4.- Kanpainen planifikazioa.

Enpresak erregistro bat eduki beharko du kontratatutako langileen zerrendarekin, non haiekin harremanetan jartzeko telefono zenbakiak, ostatu hartuko duten lekuak eta dagokien langile taldea ere adieraziko baita. Familien gaineko informazioa ere jasoko da, baita adingabeen gainekoa ere.

Enpresak, halaber, beharrezko zerbitzuen kontratazioak eta azpikontratazioak (garbiketa eta desinfekzioa, garbitegia, hornidurak, etab.) aurreikusi beharko ditu.

Komeni da enpresa kontratatzaileen prebentzio zerbitzuek ere kanpainaren planifikazioan hasieratik parte hartzea, horrela, haien jarraibideak eta neurriak ere kontuan hartzeko egin beharreko jardura guztietan.



Garrantzitsua da langileek izan dezaketen immunitate egoera ezagutzea eta egiaztatzea, aukera hauen bidez:

- Txertoaren ziurtagiria.
- COVID19tik osatu izanaren ziurtagiria.
- COVID 19aren proba negatiboen ziurtagiria.
- EBren COVID Ziurtagiri Digitala.

Ildo horretan, garrantzitsua da langileen kolektiboak sentsibilizatzea, txertoa baita COVID19aren aurkako neurrikeraginkorra eta efizienteena, pixkanaka normaltasun handiagoko agertokietara iristeko aukera emango duena, bereziki lan eremuan.

Txertoak immunitate egoeran duen garrantzia kontuan hartuta, txertatzea eskainiko zaie behar duten pertsoneri.

COVID-19a prebenitzeko eta babesteko neurri espezifikoen gaineko informazioa (ostatu lekuen, desplazamenduen eta landako lanaren gaineko ataletan ezarritako neurriak):

- Ostatu lekuak eta landako lana.
- Arnas bideak babesteko neurri sanitarioak, esaterako, maskaren erabilera, prebentzio zerbitzuek adierazten dituzten une eta lekuetan.
- Higiene neurriak.
- Joan-etorrietarako neurri egokiak.
- Espazio itxietako aireztapen neurri egokiak.
- Jokabide eta jarrera soziala.
- Zabalkundera eta informaziorako euskarriak: seinaleak, infografiak, triptikoak, audioak, etab.
- Etab.

Enplegatzaileek eta langileek prebentzioaren eta laneko segurtasunaren eta osasunaren babesaren gaineko informazioaz eta formazioaz dituzten betebeharrak gogoraraztea.

Langileen informazioa eta prestakuntza funtsezkoak dira oraingoa bezain berezia den egoera batean neurri teknikoak, antolaketa neurriak eta neurri higienikoak behar bezala hartzeko eta ezartzeko. Bermatu behar da langile guztiak ezartzen diren neurri berezien gaineko informazioa eta prestakuntza berezia eta eguneratua dutela.

Garrantzitsua da azpimarratzea informazioa eta prestakuntza egokitzuz joan behar dela, birusaren bilakaeraren eta ezagutzen denaren arabera. Informazio, formazio edo laguntzako dokumentazio guztiak langileek ulertzen duten hizkuntzan egingo dira eta hizkuntza horretan emango zaie langileei. Langileek informazioa eman zaiela eta prestakuntza jaso dutela egiaztatuko beharko dute, eta egiaztapen hori erregistratu egingo da.

Informazioari eta formazioari lotutako alderdiak batera garatuko dituzte nekazaritzako enpresa eta ustiatzeko, beren prebentzio erakundearen bitartez, inplikaturako erakunde eta antolakunde sektorialen laguntzarekin.

## 5.- Garraioa eta lekualdaketa.

- Sasoikako langileen garraiorako eta lekualdaketarako premiei dagokienez, agintaritza eskumendunek eta prebentzio zerbitzuek ezarritako jarraibideak beteko dira. Garraio publikoan maskara derrigor erabili behar da, COVID-19ak eragindako osasun krisian maskarak erabiltzeko derrigortasuna aldatzen duen apirilaren 19ko 286/2022 Errege Dekretuaren arabera, eta arduraz erabili behar da joan-etorrietarako ibilgailu partekatuetan eta kanpoko aireztapena bermatu behar da.
- Eskura dauden higienizazio tresnen erabilera.
- Garraibideen garbitasun eta desinfekzio egokia.

## 6- Higiene, babes eta antolamendu neurriak lan prozesuetan

Dauden lan prozesu guztietan higiene, babes eta antolamendu neurri hauek aplikatzea gomendatzen da:

- Saihestu jendea pilatzea.
- Garbitu eskuak sarri.
- Eskuak garbitzeko, langileen eskura ura eta xaboia jarri behar dira, edo gel hidroalkoholikoak edo eragin biruzida duten desinfektatzaileak, Osasun Ministerioak baimendu eta erregistratutakoak.
- Ez partekatu janari, ur botila eta edaririk.
- Ez partekatu katilu, edontzi edo mahai tresnarik.
- Saiatu arropa ez astintzen.
- Maskarak: Garrantzitsua da talde zaugarrietako langileek arduraz erabiltzea 1,5 metro baino distantzia txikiagoan dagoenean, aireztapen eskasa duten leku itxietan, etab.
- Leku itxietan aireztapena aplikatzea.
  - Jendea dagoen bitartean aireztapen etengabea bermatu beharko da.
  - CO2a monitorizatzea gomendatzen da, barruko espazioen aireztapen maila egokiak mantentzen lagundu baitezake.
- Maiz erabiltzen diren gainazalak garbitzea eta desinfektatzea.
- Gomendatzen da higiene neurri egokiak hartzea edozein motatako infekzioak prebenitzeko.
- Agintariek une bakoitzean ezarritako higiene eta babes pertsonaleko neurriak aplikatzea gomendatzen da.
- Eduki eskura behin erabiltzeko zapiak eta soluzio/toallatxo alkoholduak, baita oinarritzko informaziorako gune bat ere.
- Tapa eta pedala dituzten paperontziak jarriko dira zapiak eta botatzeko den beste edozein material uzteko, eta paperontzi horiek sarri garbitu beharko dira. Gomendatzen da azazkalak motzak edukitzea.
- Gomendatzen da eraztunik, eskumuturrekorik, erlojurik edo eskuak eta eskumuturrak garbitzea zailtzen duen bestelako apaingarririk ez eramatea.
- Eztul eta doministiku egitean, sudurra eta ahoa paperezko mukizapiekin estali beharko da eta mukizapiak tapa eta pedala dituen zakarrontzi batera bota.
-

- Paperezko mukizapirik ez badago, alkandoraren mahukaren gainean egin behar da eztul eta doministiku, eskuak ez kutsatzeko.
- Saihestu beharko da begiak, sudurra edo ahoa ukitzea, ez eskuekin, ez eskularruekin, horrek birusa transmititzea errazten baitu.
- Arnasbideen higienarako ohitura onak eduki behar dira. Ez bota txistua, erabili behin erabiltzeko mukizapiak.

## 7.- Txertaketa eta Sintoma Bateragarriak, Kasu Baieztatuak eta Kontaktu Estuak dituzten Pertsonen Jarduketa.

### 7.1.- Txertoak.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak azpimarratu du txertaketak garrantzi handia duela COVID-19a prebenitzeko eta haren larritasuna eta hilkortasuna murrizteko, batez ere pertsona ahulenen taldeetan. Sasoikako langileen artean txertorik hartu ez duten pertsonak egon daitezkeenez, eta txertaketa pauta osoa osatzeko dosiren bat falta dakiekeenez, pertsona horiei txertoa eskaintzen die, eta pauta hori betetzeko behar diren dosiak emango dizkie.

Osasun Sailaren eta Osakidetzaeren infografiarako esteka

<p><b>COVID 19AREN KONTRAKO TXERTAKETA-KANPAINA – 2022KO UDABERRIKO KIMAKETA</b></p> <p>Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak kanpaina bat jarri du abian Arabako Errioxako <b>sasoiko langileen COVID-19aren aurkako txertaketa indartzeko</b> 2022ko udaberriko kimaketa-kanpainan.</p> <p><b>Pertsona horiei txertaketa</b> eskainiko zaie, eta txertaketa-jarraibidea osatzeko behar diren dosiak emango zaizkie eskualdean dauden bitartean.</p> <p>Egoera epidemiologikoa gorabehera, prebentzio- eta txertaketa-neurriak oso garrantzitsuak izaten ari dira pandemia honen ondorioak murrizteko.</p>	<p><b>Zer da txertaketa-jarraibide osoa edukitzea?</b></p> <table border="1"> <tr> <td data-bbox="630 1104 815 1288"> <p><b>PFIZER txertoa</b> 2 dosi, eta azken txertoa hartu zenetik 7 egun baino gehiago igaro izana.</p> </td> <td data-bbox="836 1104 1016 1288"> <p><b>MODERNA txertoa</b> 2 dosi, eta azken txertoa hartu zenetik 14 egun baino gehiago igaro izana.</p> </td> </tr> <tr> <td data-bbox="630 1196 815 1379"> <p><b>ASTRAZENECA txertoa</b> 2 dosi, eta azken txertoa hartu zenetik 14 egun baino gehiago igaro izana.</p> </td> <td data-bbox="836 1196 1016 1379"> <p><b>JANSSEN txertoa</b> Dosi bat, eta 14 egun baino gehiago igaro izana.</p> </td> </tr> </table> <p><b>Txertaketa-jarraibide mistoa</b> 1. dosia AstraZeneca + 2. dosia Pfizer, eta azken txertoa hartu zenetik 7 egun baino gehiago igaro izana. 1. dosia AstraZeneca + 2. dosia Moderna eta azken txertoa hartu zenetik 14 egun baino gehiago igaro izana.</p> <p><b>Dosi horiek jarrita badituzte dagoeneko, besteren bat jarri behar dut? Eta Covida pasatu badut?</b></p>	<p><b>PFIZER txertoa</b> 2 dosi, eta azken txertoa hartu zenetik 7 egun baino gehiago igaro izana.</p>	<p><b>MODERNA txertoa</b> 2 dosi, eta azken txertoa hartu zenetik 14 egun baino gehiago igaro izana.</p>	<p><b>ASTRAZENECA txertoa</b> 2 dosi, eta azken txertoa hartu zenetik 14 egun baino gehiago igaro izana.</p>	<p><b>JANSSEN txertoa</b> Dosi bat, eta 14 egun baino gehiago igaro izana.</p>	<p><b>Txertatu egin nahiko nuke. Zer egin behar dut?</b></p> <p>Orain arte txertorik hartu ez baduzu, edo dosiren bat jarri baduzu eta indartze-dosia badagokizu, Osakidetza txertoa hartzeko eta beharrezko informazioa emateko aukera eskaintzen dizu.</p> <p>INTERESATUTA BAZAUDE EDO ZALANTZARIK BADUZU, DEITU HONA: <b>945006908</b></p> <p>Edo bidali mezu bat helbide honetara: <b>temporeros.osiriojaalavesa@osakidetza.eus</b></p> <p>Osasun arloko langileek zure egoera baloratuko dute eta jarraibideak emango dizkizute.</p> <p><b>Honako hauek eraman:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>NANA, pasaporte</b> edo <b>AIZA</b></li> <li>• <b>Txertaketa-ziurtagiria</b> paperean edo mugikorrean, dosiren bat jarri baduzu.</li> </ul>
<p><b>PFIZER txertoa</b> 2 dosi, eta azken txertoa hartu zenetik 7 egun baino gehiago igaro izana.</p>	<p><b>MODERNA txertoa</b> 2 dosi, eta azken txertoa hartu zenetik 14 egun baino gehiago igaro izana.</p>					
<p><b>ASTRAZENECA txertoa</b> 2 dosi, eta azken txertoa hartu zenetik 14 egun baino gehiago igaro izana.</p>	<p><b>JANSSEN txertoa</b> Dosi bat, eta 14 egun baino gehiago igaro izana.</p>					
<p><b>Osakidetza</b></p> <p><b>EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO</b> DEPARTAMENTO DE SALUD</p>	<p>Zure zalantzak argitzeko, deitu telefono honetara: <b>945006908</b></p> <p>Edo bidali mezu bat helbide honetara: <b>temporeros.osiriojaalavesa@osakidetza.eus</b></p> <p>Osasun arloko langileek zure egoera baloratuko dute eta jarraibideak emango dizkizute.</p>	<p><b>Nola jaitsi dezaket nire COVID ziurtagiria?</b></p> <p>Sartu Osasun Ministerioaren web orriko esteka honetan: <a href="https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov/ccd/ccaa.htm">https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov/ccd/ccaa.htm</a></p> <table border="1"> <tr> <td data-bbox="1061 1597 1252 1697"> <p><b>Non txertatuko naute?</b></p> <p>Txertaketa-gune bat jarriko da Arabako Errioxako Eskualdean.</p> </td> <td data-bbox="1262 1597 1447 1697"> <p><b>Zein txerto jarriko didate?</b></p> <p>Pfizer</p> </td> </tr> </table>	<p><b>Non txertatuko naute?</b></p> <p>Txertaketa-gune bat jarriko da Arabako Errioxako Eskualdean.</p>	<p><b>Zein txerto jarriko didate?</b></p> <p>Pfizer</p>		
<p><b>Non txertatuko naute?</b></p> <p>Txertaketa-gune bat jarriko da Arabako Errioxako Eskualdean.</p>	<p><b>Zein txerto jarriko didate?</b></p> <p>Pfizer</p>					

[COVID19areb Txertaketa Kanpaina](#)

## 7.2.- Txertaketa eta Sintoma Bateragarriak, Kasu Baieztatuak eta Kontaktu Estuak dituzten Pertsonen

**Kontsultatu webgunea:** <https://www.euskadi.eus/coronavirus/>.

**COVID-19aren ohiko sintomak dira:** sukarra, eztula, eztarriko mina, aire faltaren sentsazioa, dastamena eta usaimena galtzea, beherakoa...

### 7.2.1. Sintomak badituzu, beharrezkoa da:

- Areagotu neurriak eta murriztu ahalik eta gehien interakzio sozialak sintomak hasi eta **hurrengo 10 egunetan**:
  - maskara etengabe erabiltzea
  - mantendu eskuen higiene egokia
  - saihestu pertsona kalteberekiko kontaktua ekitaldi jendetsuetan parte hartzea.
- Zure sintomak zaindu eta okerrera eginez gero edo sintoma larriagoak agertuz gero, hala nola arnasteko zailtasuna, 4 egunetik gorako sukar altua, ezul oso handia, jarri harremanetan Osasun Zentroarekin, Osasun Kontseiluarekin (900 2030 50) edo deitu Larrialdietara (112). Tramiteak egiteko arazoak badituzu, jarri harremanetan zure arduradunarekin.

Gainera, **sintomarik baduzu eta probak egiteko lehentasuna duen kolektibokoa bazara (\*)**

- Bete Osakidetzaren webguneko formularioa, proba diagnostiko bat egiteko. Laguntza behar izanez gero, jarri harremanetan zure arduradunarekin edo osasun zentroarekin. **Osakidetzaz zurekin harremanetan jarriko da (SMS/dei bidez)** probaren hitzordua jakinarazteko.
- Bitartean, kontu handiz ibili behar duzu: maskara etengabe erabili behar duzu, eskuak behar bezala garbitu behar dituzu, pertsona zaurgarriekin kontaktua saihestu behar duzu eta interakzio sozialak ahalik eta gehien murriztu behar dituzu probaren emaitza lortu arte.

### (\*) **Probak egiteko lehentasuna duten pertsonen kolektiboan sartzen dira:**

- COVID-19arekiko kalteberatasun egoeran dauden pertsonak:
  - 60 urte edo gehiago
  - Haurdun dauden emakumeak
  - Berezko edo kanpoko arrazoiengatik immunodeprimitutako pertsonak: transplantea egin eta bi urtera, guraso hematopoietikoen edo CAR-Ten transplantea jasotzen dutenak, tratamendu immunosupresorean edo ostalariaren aurkako injertoaren gaixotasuna dutenak, transplantetik zenbat denbora igaro den kontuan hartu gabe; organo solidoaren transplantearen hartzaileak (bi urte baino gutxiago edo errefus gertakarirako tratamendu immunosupresorearekin); immunoeskasia primarioak: konbinatuak eta B zeluletakoak, txertoari erantzuten ez diotela frogatu bada); aurreko hiru hilabeteetan (sei hilabete, rituximab bada), Cd20aren aurkako farmakoak edo belinumab; down sindromea duten 40 urtetik gorako pertsonak.

- Azken 14 egunetan aldaera esanguratsu edo kezagarri bat duen eskualde batean egon direla dakiten pertsonak, aldaera horrek ez badu gure lurraldean zirkulazio komunitariorik izan.
- Espainiara iritsi berri den migratzaile irregularra.

### 7.2.2. Kasu baieztatua bazara

- **Hau egin behar duzu:**
  - Arduradunari jakinarazi
  - Areagotu neurriak sintomak hasi edo sintomarik gabeko pertsonen kasuan diagnostikoa egin eta hurrengo 10 egunetan zehar.
    - Erabili maskara etengabe.
    - Murriztu ahalik eta gehien interakzio sozialak.
    - Mantendu eskuen higiene egokia.
    - Saiatu pertsona kalteberekin ez egoten.
    - Saiatu jendetza batzen den ekitaldietara ez joaten.
    - Ohartarazi zure kontaktu estuei egoeraz, sintomarik agertzen den begiratu dezaten.
  - Zure sintomak zaindu eta **okerrera eginez gero edo sintoma larriagoak** agertuz gero, hala nola arnasteko zailtasuna, 4 egunetik gorako sukar altua, eztul oso handia, **jarri harremanetan** Osasun Zentroarekin, Osasun Kontseiluarekin (900 900 20 50) edo deitu Larrialdietara (112).
  - Tramiteak egiteko arazoak badituzu, jarri harremanetan zure arduradunarekin.

### 7.2.3. Kontaktua estua bazara (KE):

- **Definizioa:** Kontaktua estua da kasu positibo baten leku berean egon den edozein pertsona, 2 metro baino distantzia txikiagoan eta guztira 15 minutu baino gehiago 24 orduetan, maskara etengabe eta behar bezala erabili gabe, proba egin edo sintomak agertu aurreko 48 orduetan.
- **KE bazara:**  
Ez egin berrogeialdirik.  
Azken esposizioaren ondorengo 10 egunetan, kontu handiz ibili behar da, eta ahalik eta gehien murriztu behar dira interakzio sozialak, maskara etengabe erabiliz eta eskuen higiene egokiari eutsiz. Bereziki saiatu behar da pertsona kalteberekin ez egoten.  
Sintomak hasiz gero, kontsultatu 7.2.1 puntua.

## 8.- Berrikuspena eta eguneraketa.

Pandemiaren inguruan ezagutzen dena, sistemen eta neurrien bilakaera bera eta egiten diren hobekuntza proposamenak oinarri hartuta berrikusiko eta eguneratuko dira protokolo hau eta ezarritako neurriak.

## Taulen eta Ilustrazioen aurkibidea.

1. taula.- SARS-CoV-2 birus bideragarria duten aerosolak sortzeko arrisku faktoreak.. Hemendik lortua: Osasun Ministerioaren dokumentu tekniko: SARS-CoV-2a aerosolen bidez transmititzeko arriskua ebaluatzea. Prebentzio neurriak eta gomendioak .....	5
2. taula.- SARS-CoV-2 birusaren transmisioa kontrolatzeko prebentzio neurrien eraginkortasunaren analisia. Transmisioa kontrolatzeko prebentzio neurrien eraginkortasunari buruzko Informazio Zientifiko-Teknikotik abiatuta landua; Osasun Ministerioko Koordinazio eta Alerta eta Larrialdi Sanitarioen Zentroa, 2021eko martxoaren 25a. ....	24
1. Ilustrazioa.- Airearen berritze kopurua orduko, DIN arauen araebra. Hemendik lortua: <a href="https://www.casals.com/assets/uploads/editor/file/renovacion_de_aire_en_locales_tipicos_casals.pdf">https://www.casals.com/assets/uploads/editor/file/renovacion_de_aire_en_locales_tipicos_casals.pdf</a> . ....	27
2. Ilustrazioa.- SARS-CoV-2aren transmisioa prebenitzeko neurriak. Hemendik lortua: Documento Técnico del Ministerio de Sanidad: Evaluación del riesgo de la transmisión de SARS-CoV-2 mediante aerosoles. Medidas de prevención y recomendaciones. ....	28

## Bibliografia eta kontsultatutako erreferentziak:

- Ministerio de Ciencia e Innovación de España. (2020). *Informe científico sobre vías de transmisión SARS-CoV-2*. Madrid: Ministerio de Ciencia e Innovación de España.
- OSALAN (Instituto de Seguridad y Salud Laborales). (2020). *Fichas técnicas de prevención del Covid-19.- Industria Alimentaria*. Obtenido de [https://www.osalan.euskadi.eus/contenidos/informacion/info\\_fichas\\_covid/es\\_def/adjuntos/ficha17\\_industria\\_alimentaria.pdf](https://www.osalan.euskadi.eus/contenidos/informacion/info_fichas_covid/es_def/adjuntos/ficha17_industria_alimentaria.pdf)
- Casals. (2019). *Como calcular las renovaciones por hora según la actividad de un local*. Obtenido de Como calcular las renovaciones por hora según la actividad de un local: [https://www.casals.com/assets/uploads/editor/file/renovacion\\_de\\_aire\\_en\\_locales\\_tipicos\\_casals.pdf](https://www.casals.com/assets/uploads/editor/file/renovacion_de_aire_en_locales_tipicos_casals.pdf)
- Centro de Coordinación de Alertas y Emergencias Sanitarias . (2021). *Información sobre la Inmunidad y el desarrollo de vacunas frene a COVID-19*. Madrid: Ministerio de Salud.
- Centro de Coordinación de Alertas y Emergencias Sanitarias . (2021). *Parámetros epidemiológicos*. Madrid: Ministerio de Salud.
- Centro de Coordinación de Alertas y Emergencias Sanitarias . (2021). *Transmisión SARS-CoV-2*. Madrid: Ministerio de Sanidad.
- Centro de Coordinación de Alertas y Emergencias Sanitarias. (2021). *Efectividad de las medidas preventivas para el control de la transmisión*. Madrid: Ministerio de Sanidad.
- Centro de Coordinación de Alertas y Emergencias Sanitarias. (2021). *Información mnicrobiológica acerca de SARS-CoV-2*. Madrid: Ministerio de Salud.

- Comisión Europea. (16 de julio de 2020). *Coronavirus: la Comisión Europea insta a adoptar medidas para proteger a los trabajadores de temporada*. Obtenido de Coronavirus: la Comisión Europea insta a adoptar medidas para proteger a los trabajadores de temporada:  
[https://ec.europa.eu/commission/presscorner/detail/es/ip\\_20\\_1342](https://ec.europa.eu/commission/presscorner/detail/es/ip_20_1342)
- Comisión Europea. (12 de julio de 2021). *Certificado COVID Digital de la UE*. Obtenido de Certificado COVID Digital de la UE: [https://ec.europa.eu/info/live-work-travel-eu/coronavirus-response/safe-covid-19-vaccines-europeans/eu-digital-covid-certificate\\_es](https://ec.europa.eu/info/live-work-travel-eu/coronavirus-response/safe-covid-19-vaccines-europeans/eu-digital-covid-certificate_es)
- Cómo mejorar la calidad del aire con sondas, detectores y medidores*. (12 de noviembre de 2020). Obtenido de Cómo mejorar la calidad del aire con sondas, detectores y medidores:  
<https://www.siberzone.es/blog-sistemas-ventilacion/controlar-la-calidad-del-aire/>
- Comunidad de Madrid. Fundación de la Energía. (2014). *Guía de renovación de aire eficiente en el sector residencial (2014)*. Obtenido de Guía de renovación de aire eficiente en el sector residencial (2014): <https://www.fenercom.com/publicacion/guia-de-renovacion-de-aire-eficiente-en-el-sector-residencial-2014/>
- Consejo de Ministros. (19 de abril de 2022). *Referencia del Consejo de Ministros*. Obtenido de <https://www.lamoncloa.gob.es/consejodeministros/referencias/Paginas/2022/refc20220419.aspx#mascarillas>
- Consejo Interterritorial. Sistema Nacional de Salud. (22 de junio de 2021). *Estrategia de vacunación frente a COVID-19*. Obtenido de [https://www.msbs.gob.es/profesionales/saludPublica/prevPromocion/vacunaciones/covid19/docs/COVID-19\\_Actualizacion8\\_EstrategiaVacunacion.pdf](https://www.msbs.gob.es/profesionales/saludPublica/prevPromocion/vacunaciones/covid19/docs/COVID-19_Actualizacion8_EstrategiaVacunacion.pdf)
- CSIC; IDAE; MESURA ORG. (6 de noviembre de 2020). *Guía para la Ventilación en Aulas. Versión 3*. Obtenido de Guía para la Ventilación en Aulas. Versión 3:  
[https://www.ciencia.gob.es/stfls/MICINN/Ministerio/FICHEROS/version3\\_de\\_la\\_guia\\_actualizada\\_10\\_de\\_noviembre\\_de\\_2020.pdf](https://www.ciencia.gob.es/stfls/MICINN/Ministerio/FICHEROS/version3_de_la_guia_actualizada_10_de_noviembre_de_2020.pdf)
- Dirección General de Salud Pública. (2020). *Recomendaciones para la prevención y control del coronavirus (COVID19) en las explotaciones agrícolas que vayan a contratar a temporeros*. Zaragoza: Gobierno de Aragón. Obtenido de [https://www.aragon.es/documents/20127/1650151/Recomendaciones\\_SP\\_SectorAgrario\\_Temporeros\\_COVID19\\_PAVE.pdf/3da520a0-5d6f-2181-bbc7-1addc1f3b28a?t=1588323847077](https://www.aragon.es/documents/20127/1650151/Recomendaciones_SP_SectorAgrario_Temporeros_COVID19_PAVE.pdf/3da520a0-5d6f-2181-bbc7-1addc1f3b28a?t=1588323847077)
- Evaluación del Riesgo de la Trasmisión de SARS-CoV-2 mediante aerosoles. Medidas de prevención y recomendaciones*. (18 de noviembre de 2020). Obtenido de Evaluación del Riesgo de la Trasmisión de SARS-CoV-2 mediante aerosoles. Medidas de prevención y recomendaciones.: [https://www.msbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov/documentos/COVID19\\_Aerosoles.pdf](https://www.msbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov/documentos/COVID19_Aerosoles.pdf)
- Gobierno Vasco (Departamento de Salud). (23 de agosto de 2021). *Protocolo de vigilancia de coronavirus SARS-Cov-2 del 23/08/2021*. Obtenido de Protocolo de vigilancia de coronavirus SARS-Cov-2 del 23/08/2021:  
[https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/vigilancia\\_protocolos/es\\_def/adjuntos/Protocolo-Coronavirus-SARS-CoV-2-es.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/vigilancia_protocolos/es_def/adjuntos/Protocolo-Coronavirus-SARS-CoV-2-es.pdf)
- Gobierno Vasco. (2020). *Protocolo frente al Coronavirus (COVID-19) para la Flota, Explotaciones Agropecuarias y la Industria Alimentaria*. Obtenido de [https://www.euskadi.eus/contenidos/noticia/protocolo\\_covid19/es\\_def/adjuntos/PROTOCOLO-Flota-Agricultura-Alimentacion\\_DEF.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/noticia/protocolo_covid19/es_def/adjuntos/PROTOCOLO-Flota-Agricultura-Alimentacion_DEF.pdf)

- IDAE. (junio de 2012). *Guía técnica Instalaciones de climatización con equipos autónomos*. Obtenido de Guía técnica Instalaciones de climatización con equipos autónomos.:  
